



XVI. JUAN SAN MARTIN BEKA 2023

Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) laguntzarekin, euskarazko ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko, honen izena duen ikerketa-bekarako deia egiten du.

Ikerketa esparruak Juan San Martinek bere bizitzan zehar landutako honako hauek dira:

- Antropologia, linguistika, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna, zuzenbidea...
- **2023ko deialdian**, honako ikerketa esparrua sartuko da: **MENDIZALETASUNA ETA NATURA**.

1. BEKAREN EZAUGARRIAK

1.1 Proiektua, azterlana eta memoria **euskaraz** burutuko dira.

1.2 Bekaren iraupena gehienez **18 hilabetekoa** izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.

1.3 Beka honen diru zenbatekoa **9.000 eurokoa** izango da.

1.4 Ikerketa-lanak **originala eta argitaratu gabea** izan behar du.

2. ESKATZAILEAK

2.1 Beka **norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute**. Bigarren kasu horretan, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.

2.2 Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da **diplomatura, gradua edo maila horretako tituluduna edo goi mailako tituluduna izatea**. Lantaldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hori.

2.3 **Euskarazko gaitasuna**: eskatzaileak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **C1 hizkuntza-eskakizuna** edo baliokidea izan beharko du: EGA, HE3, etab. Lantaldeen kasuan, partaide guztiek izan beharko dute gaitasun hori.

3. ESKABIDEEN AURKEZPENA

Beka hau tramitatzeke, aplikagarri den araudi erregulatzaileak eskatzen dituen hainbat datu eta dokumentu behar dira, interesdunek aurkeztu behar dituztenak.

Hala ere, interesdunek honako hauek ez aurkezteko eskubidea dute (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua):

- Eibarko Udalaren esku dauden datuak edo dokumentuak.
- Beste edozein administraziok egindako dokumentuak.



- Dokumentu originalak (salbu eta, salbuespen gisa, aplikagarria den araudiak kontrakoa ezartzen badu).
- Interesdunak lehenago edozein administraziotan aurkeztutako datuak edo dokumentuak.

Era berean, administrazio publikoek dokumentuak elektronikoki biltzeko betebeharra dute, beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoki batzuei kontsulta eginez (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikulua).

Alde horretatik, eta beka hau tramitzeko, datu-bitartekaritzako plataformen bidez edo bitarteko telematikoen bidez Eibarko Udalak administrazio publiko eskudunei honako informazio hau kontsultatuko die, betiere interesdunak ez badio berariaz aurka egiten horiek erabiltzeari; kasu horretan, interesdunak dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Legezko ordezkapenen kasuan, ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Gipuzkoako, Bizkaiko eta/edo Arabako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Eibarko Udalarekiko ordainketak egunean daudela ofizioz egiaztatuko da.

Kontsulta ezin bada egin datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoki batzuen bidez, Eibarko Udalak, salbuespen gisa, dokumentazio hori aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Beka eskuratzeko eskaerak elektronikoki egingo dira www.eibar.eus udal webgunetik. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Elektronikoki bete behar den inprimakiari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

3.1 Espediente akademiko zehaztua eta osatua. Lantaldeen kasuan partaide guztienak.

3.2 Frogagiria, eskatzaileak duen banku-kontuaren titularitatearena; eskaera egin duen pertsonaren identitatearekin bat etorri behar dena. Ondoko dokumentu hauetatik edozein da baliokidea: laburpen bankarioa; aurrezki-libreta; banketxeak luzatutako ziurtagiria edo "Titular-kontua" izeneko orria (udal webgunean, www.eibar.eus, eskuragarri) behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin.

3.3 Lantaldeen kasuan, aitoren eta baimenen dokumentua aurkeztu behar da, partaide bakoitzak behar bezala beteta eta sinatuta (udal web orrian, www.eibar.eus, eskuratu ahal izango den ereduaren arabera).

3.4 Eskatzailearen euskarako gaitasuna frogatzen duen dokumentua: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko **C1 hizkuntza-eskakizuna** edo baliokidea. Lantaldeen kasuan, partaide guztienak.



3.5 Eskatzailearen **curriculum vitae** behar bezala beteta, Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak prestatutako ereduaren arabera (eredua www.eibar.eus web orrian eskuragarri dago). Lantaldeen kasuan, partaide guztiena.

Beka-eskabidearekin batera, EZ dira aurkeztu beharko curriculum vitaean adierazitako titulazioen eta merezimenduen egiaztagiriak. Nahikoa izango da interesdunek adieraztea beka eskaera aurkezten den egunean alegatu diren titulazio eta merituak egiazkoak eta zehatzak direla, epaimahaiak egiaztatu ahal izango dituen arren.

Adierazpen hori erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Curriculum vitaean adierazitako titulazioen eta merezimenduen ziurtagirien egiaztagiriak epaimahaiak berriaz eskatzen dituen pertsonak bakarrik egiaztatu beharko dituzte, dagokion unean.

3.6 **Gaiaren azalpena** eta lana zelan burutuko litzatekeen azaltzen duen **proiektua**, ahalik eta zehatzena (**15 orrialdekoa gehienez**), ondokoak azalduz:

- Lanaren ikerketa esparrua.
- Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.
- Ikertzailearen edo lantaldearen aurreko esperientzia.
- Helburuak.
- Materialak, baliabideak eta lan metodologia.
- Lana garatzeko kronograma.
- Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.

3.7 Zergak Gipuzkoa, Bizkaia edo Araba ez den beste lurralde historiko batean ordaintzen badira, eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa. Lantaldeen kasuan, partaide guztiena.

4. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean hasiko da eta 2023ko urriaren 12an amaituko da (biak barne).

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio interesatuari. Hala egingo ez balu eskanan atzera egin duela ulertuko da, betiere alde aurretik ebazpena emanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

5. ESLEIPEN PROZEDURA

Lanen balorazioa epaimahai batek egingo du.

Honako hauek osatuko dute epaimahaia:



Batzordeburua: Alkatea edo berak eskuordetzen duen Udalbatzako kidea.

Batzordekideak:

- Euskara batzordeburua.
- Juan San Martin familiak izendatutako ordezkaria.
- Aurkeztutako proiektuen esparruko UEUko ordezkari 2.

Idazkaria: Euskara Teknikaria, bozkarik gabe.

Epaimahaiak bekaren esparruan adituak diren pertsonen laguntza eta aholkularitza eskatzeko ahalmena du, egoki irizten dion guztietan.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eskatu dezake edo/eta hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.

Honako alderdi hauek hartuko dira aukeraketarako irizpide nagusitzat:

- Eskatzaileen espediente akademikoa eta bere curriculum (0-10 puntu).
- Ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasun eta balio zientifikoa, originaltasuna eta bideragarritasuna (0-30 puntu).
- Eibarko Udal Artxiboaren edo/eta Udako Euskal Unibertsitateak Eibarko Markeskoan duen fondoan erabilpena dakarren gaia izatea edo/eta Eibarrekin harreman zuzena duena izatea (0-10 puntu).

Puntuaketa:

Eskatzailearen puntuazioa, epaimahaikide bakoitzaren puntuak gehitu eta batez bestekoa izango da. Epaimahaikide guztiek dute hitzegiteko eta puntuazioa jartzeko eskubidea, idazkariak izan ezik.

Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio.

Berdinketa egonez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan arautu dena alde batera laga gabe, berdinketak jarraitzen badu, ordena zozketaz egingo litzateke.

Epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

Prozedura:

Epaimahaiak behin betiko proposamena egin aurretik, beka-eskabidean adierazitako titulazioak eta merezimenduak egiaztatuko dira.



Eibarko Udalak 10 egun balioduneko epea emango dio puntuazio handiena duen eskatzaileari, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eskabidean adierazitako titulazioak eta merezimenduak agiri bidez egiaztatzeko. Dokumentazio hori elektronikoki aurkeztuko da, udalaren web-orriko (www.eibar.eus) **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA** izapidearen bidez.

Izapide honetan ezin izango da titulazio eta merezimendu berririk alegatu, ezta beka eskabidean alegatutakoak aldatu ere.

Dokumentazioa epearen barruan aurkezten ez bada, edo aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen bada puntuazio handiena duen eskatzaileak ez dituela betetzen deialdi honetako 2. atalean adierazitako baldintzak, puntuaziorik handiena duen pertsonak galdu egingo ditu prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak, eta puntuazio handiena duen hurrengo eskatzaileara igaroko da.

Epaimahaiak behin betiko proposamena egingo du merezimendu-lehiaketaren emaitza eta alegatutako titulazioen eta merezimenduen egiaztapen dokumentala oinarri hartuta.

Beka hau Eibarko Alkateak emango du epaimahaiaren behin betiko proposamena jaso ondoren.

Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie.

Bekaren onuradunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epean espreski idatziz uko egiten ez badio, ulertuko da beka eta oinarrietako betebeharrak ontzat ematen dituela.

6. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

6.1 Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren araberako txosten bat udal webguneko (www.eibar.eus) **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA** tramitearen bidez **elektronikoki** aurkeztea bekaren lehen 9 hilabeteak igarotakoan.

6.2 Eibarko Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen esku egotea egindako lanen ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.

6.3 Aurreikusitako planaren edo lantaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezingo da egin Eibarko Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen baimenik gabe.

6.4 Bekaren 18 hilabeteak igarotakoan memoria (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) udal webguneko (www.eibar.eus) **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA** tramitearen bidez **elektronikoki** aurkeztea. Lana tarte bikoitzez mekanografiaturik egon beharko da eta koerlatiboki orrialdeztatua.

Lanaren luzerak 100 eta 300 orrialde artekoa izan beharko du, orrialdeko 30 lerroz eta lerroko 60 idazki zeinuz, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik. Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo tokirik ez balego lanaren bukaeran, eranskin gisa, txertatuko da. Era horretako elementu bakoitzak behean bere azalpentxoak izan beharko du. Edozein kasutan, lanak gutxienez testuko 100 orrialderen baliokidea izan behar du. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontutan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxieneakoak betetzeko.

Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen duten deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.



6.5 Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Eibarko Udala, UEU eta lanaren egilearen artean eguna eta ordua adostuta.

6.6 Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitaterik ez badu, justifikazio edo gaintitu ezinezko arrazoirik gabe, oinarri hauen 9. puntuari jasotako penalizazioak ezarriko zaizkio irabazleari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez.

7. BEKAREN ORDAINKETA

Bekaren ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak burutu ondoren:

- Kopuru osoaren % 40a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren % 20a, beka ematen zaionetik 9 hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena (6.1. oinarriaren arabera) aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.
- Gainontzeko % 40a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.

Lana amaituko ez balitz, oinarri hauetako 9. puntua (Itzulketak eta zigorrak) ezarriko da.

8. BATERAGARRITASUNA EDO BATERAGARRITASUN EZA HELBURU BERBERERAKO EMANDAKO BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA EDO BALIABIDE BATZUEKIN, EDOZEIN ADMINISTRAZIOETIK EDO ERAKUNDE PUBLIKOETATIK ZEIN PRIBATUETATIK ETORRI, ERAKUNDE NAZIOALETATIK, EUROPAKO BATASUNETIK EDO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETATIK ETORRI.

Dirulaguntza hauek bateraezinak izango dira helburu berbererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetatik edo erakunde publikotatik zein pribatutatik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozela, zeinahi delarik ere jatorria; dirulaguntza edo laguntza horien araudi erregulatzailerak ezar dezakeena eragotzi gabe.

9. ITZULKETAK ETA ZIGORRAK

9.1. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatu baino lehen eta Udalak aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak bere borondatez saria itzultzen badu, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu.

Udalak berandutze interesak kalkulatuko ditu Dirulaguntzen Lege Orokorraren 38. artikuluan jasotakoari jarraituta.

9.2. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatuta Udalak errekeritu ondoren saria itzultzen denean, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa itzultzeaz eta dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz gain, ezarriko zaion zigorrari aurre egin beharko dio. Zigorra ordura arte jasotako diru-sariaren zenbatekoaren adinako isuna izango da.



10. LANEN JABETZA

Lanen jabea **Eibarko Udala** izango da. Udalak berarentzat gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez, lehentasunez Udako Euskal Unibertsitatearekin, egoki deritzonean. Beti ere, lanaren egilea edo egileak aipatu beharko ditu.

Sortutako materiala aurkeztu eta urte biko epean Udalak argitaratu ez badu, egileak edo egileek material hori erabili ahal izango du(te) egokien iruditzen zaio(e)na egiteko. Egileak edo egileek orduan, jasotako bekaren aipamena egin beharko du(te) (bekaren eta beka eman duen erakundearen eta laguntzailearen izenak jarriz) eta Udalari argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkio.

11. GORABEHERAK

Eibarko Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak oinarri hauetan aurreikusi gabeko gorabeherak konpondu ahal izango dituzte. Era berean, beka indarrik gabe utzi ahal izango dute, onuradunak betebeharrak hauetako eginbeharrekoak betetzeke lagako balitu(zte).

12. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak kultura eta euskara sustatzeko euskarri informatikoa sailari eskaintzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela-eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna: Eibarko Udaleko Euskara Saila.

Telefonoa: 943- 70 84 26.

Emaila: euskara@eibar.eus

Eskubideak: Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, datuak eramateko, datuen aurka egiteko edo datuen tratamenduari mugak jartzeko eskubideak daude; horretarako idazki bat egin behar zaio Eibarko Udaleko tratamenduaren arduradunari, honako helbide honetara: Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.